

ETXKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA

Tartea	Hileko ordainsaria euro hilean	Kotizazio-oinarria euro hilean
1.a	306,00 raino	284 €
2.a	306,01 eta 474,00 bitartean	405 €
3.a	474,01 eta 644,00 bitartean	559€
4.a	644,01 eta 814,00 bitartean	729€
5.a	814,01 eta 986,00 bitartean	901€
6.a	986,01 eta 1.153,00 bitartean	1.069€
7.a	1.153,01 eta 1.323,00 bitartean	1.323€
8.a	1.323,01tik gora	Hileko ordainsaria

Kontzeptua	Enplegu-emaila	Langilea	Guztira
Kontingentzia arruntei dagokienez	%23,60	%4,70	%28,30
*Lan - istripuei eta gaixotasun profesionali dagokienez	%1,50		%1,50
Langabezia (*)	%5,50	%1,55	%7,05
Soldatak Bermatzeko Funtza	%0,20		%0,20
BEMa	%0,58	%0,12	%0,70

*Kontingentzia profesionalak (laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak), prima-tarifa (abenduaren 28ko 42/2006 Legea, Estatuko 2007ko Aurrekontu Orokorrena—laugarren xedapen gehigarria—, abenduaren 28ko 28/2018 Errege Lege-Dekretuaren azken xedapenetako bosgarrena —97. epigrafeko kodea—); ateratzen den kuota enplegatzailearen kontura izango da soil-soilik.

ABEa: % 0,80.

BHBa: % 0,70.

Hona hemen sistema berezi honetan aplikatu beharreko kotizazio-onurak:

- Kontingentzia arruntengatiko Gizarte Segurantzako enpresa-kuotan % 20ko murrizketa araubidean alta emateagatik
- Kontingentzia arruntengatiko Gizarte Segurantzako enpresa-kuotaren % 45eko onura, familia ugarietan zaintzaileak kontratatzeagatik (ezin da metatu alta % 20ko murrizketarekin). Kasu guztietan, hoberi hau familiako zaintzaile bakarra kontratatzean baino ez da izango baliagarria, eta familia ugariak modu ofizialean aitortua izan beharko du.
- % 80ko hoberia enpresak langabezia-kotizazioari egindako ekarpenean (2022ko urriaren 1etik aurrera indarrean).
- % 75eko murrizketa enpresek Gizarte Segurantzari kontingentzia arruntengatik ordaindu beharreko kuotan, 62 urte beteak dituzten langileen aldi baterako ezintasun-egoeran (2022ko urriaren 1etik aurrera indarrean).
- % 80ko hoberia FOGASaren kotizazioan (2022ko urriaren 1etik aurrera indarrean).
Hoberiak Gizarte Segurantzako enpresa-kuotan desgaitasunen bat duten pertsonak kontratatzeagatik, abenduaren 29ko 43/2006 Legearen eta urtarrilaren 10eko 1/2023 Errege Lege Dekretuaren arabera.
- % 100eko hoberia enpresek Gizarte Segurantzari kontingentzia arruntengatik ordaindu beharreko kuotan, genero-indarkeriaren biktime diren langileak ordezkatzeko bitarteko kontratuak egiteagatik, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 21. artikuluen 3. apartatuaren arabera.

- % 100eko hobaria enpresek Gizarte Segurantzari kontingentzia arruntengatik ordaindu beharreko kuotan, bitarteko kontratuak egiteagatik lan-kontratua bertan behera utzi duten edo mugigarritasun geogra ikorako edo lantokiz aldatzeko eskubidea erabili duten sexu-indarkeriaren biktima diren langileak ordezkatzeko, sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 38. artikulua 3. apartatuaren arabera.

- “%100eko hobaria Gizarte Segurantzako enpresa-kuota osoan langabetuei bitarteko kontratuak egiteagatik lan-kontratua etenda duten langileak ordezkatzeko, etetearen arrazoia haurdunaldiko arriskua edo edoskitze naturaleko arriskua, jaiotza eta adingabearen zaintza eta bularreko umearen zaintza erantzunkidea denean, Langileen Estatutuan ezartzen denez. 2023ko irailaren 1etik aurrera, kontratazio berrietarako, hobari hori, oro har, Gizarte Segurantzako enpresa-kuota osoaren 366 euro izango da.”

- “Aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiengatik ordeztutako langileen Gizarte Segurantzako enpresa-kuota osoaren % 100eko hobaria. Hobari hori kasu hauetan bakarrik aplikatuko da: denboran batera gertatzen direnean jarduera arrazoi horiengatik etetea eta ordezkoaren interinitate-kontratua, betiere etetearen gehieneko epearen mugarekin. 2023ko irailaren 1etik aurrera, kontratazio berrietarako, hobari hori, oro har, Gizarte Segurantzako enpresa-kuota osoaren 366 euro izango da.”

- Iraupen jakineko kontratazioetan, ehuneko 8,30ekoa izango da; ehuneko 6,70 enplegatzailearen kontura izango da, eta ehuneko 1,60, berriz, langilearen kontura.

Otsaila 2024